

UDAL PLANEAMENDUAREN AHOLKU KONTSEILUAREN BATZORDE IRAUNKORRAK EGINDAKO BILERAREN AKTA

Eguna: 2015eko abenduaren 14a

Tokia: Donostiako Udaleko Gobernu Batzarraren aretoa.

Bileran izan direnak.

-Batzordeburua: Enrique Ramos Vispo, Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkaria, alkatearen ordezkari gisa.

-BATZORDEKIDEAK:

- Iñaki Gurrutxaga Armendariz, EAJ/PNV taldearen ordezkari gisa.
- Jon Insausti Maisterrena, EAJ/PNV taldearen ordezkari gisa.
- Ricardo Burutaran Ferré, EH BILDU taldearen ordezkari gisa.
- Amaia Almirall López de Luzuriaga, EH BILDU taldearen ordezkari gisa.
- Miren Albistur Garmendia, PP taldearen ordezkari gisa.
- Joaquín Gómez Lima, *Kintxo*, IRABAZI taldearen ordezkari gisa.
- Juan Carlos Cuevas Argandoña, Hirigintzako zuzendaria.
- Marko Sierra, Haritzalde Naturzaleen Elkartearen ordezkari gisa.
- Leopoldo Sánchez Tabernero, auzo elkartearen ordezkari gisa.
- Ray Mendiburu Abad, auzo elkartearen ordezkari gisa.
- Edurne Aperribay Ulacia, Emakumeak eta Berdintasuna Foroaren ordezkari gisa.
- Lourdes Lázaro Martínez, merkatarien elkartearen ordezkari gisa.
- Izaskun Aseginolaza Braga, Arkitektoen Elkargoaren ordezkari gisa.

Gonbidatu gisa etorri direnak

- Felix Soto, Uliako Auzo Elkartearen ordezkari gisa.

-IDAZKARIA:

- Jon Mikel Garagarza Roteta, Hirigintzako Antolamendu eta Exekuzio Zerbitzu Juridiko Administratiboaren burua, Udaleko Idazkaritza Nagusiak eskuordetuta.

17:00etan hasi da Udal Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren Batzorde Orokorren bilera, egindako deialdiaren erantzunez, gai zerrenda hau duela:

I.Hasierako onarpena ematea Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak AU.05 Ategorrieta eta AU NU.02 Ulia eremuetarako agintzen duena aldatzeari.

Batzordeburuak hasi du bilera, eta Hirigintza Sostengagarriko zuzendari Juan Carlos Cuevasi eman dio hitza, dokumentuaren ildo nagusiak azal ditzan. Hark, beste hainbat konturen artean, adierazi du guztira 75 bizitoki egingo dituztela eta, lehenengo dokumentuarekin alderatuz, ezabatu egin dutela "adinekoentzako bizitokiak" aipamena.

Haritzaldeko ordezkariak hartu du hitza, eta kritika bat egin dio dokumentuari, arreta balio naturalistiko, sozial, historiko eta lorezaintzakoetan jarrita. Haren iritziz, lursaila f.20 gisa kalifikatu beharko litzateke, eta ez daude ados dokumentuarekin, orain dagoen moduan.

Soto jaunak hartu du hitza, eta adierazi du ingurunea parketzat hartu behar dela, eta, izatez, horrela funtzionatzen duela eta kontserbatu ere halaxe kontserbatu behar dela. Adierazi du komenigarriagoa eta egokiagoa litzatekeela zuzkidura bizitokiak Okendoalde eremuan egitea, eta horretarako plan berezia izapidetzeko eskatu du. Azkenik, aholku kontseiluko kideak inguru hura bisitatzera gonbidatu ditu eta espedientea mahai gainean uzteko eskatu du.

Auzo elkarten ordezkari Ray Mendiburuk hartu du hitza. Lehenik eta behin, adierazi du hainbat zailtasun izan dituela espedientea eskuratzeko, eta kontsultatu zuenean ez zegoela Uliako Auzo Elkarteak egindako alegazioen gaineko txosten juridikorik. Galdetu du asmorik ba ote dagoen paisaiaren eta zuhaitzen gaineko azterlanik egiteko, eta esan du merezi duela hori egitea eta horregatik tresna honen onarpena atzeratu behar bada atzeratzea. Azkenik, esan du aldaketa horrekin lurzorua artifizializatuko dela eta ez dagoela hori onartzerik.

Emakumeak eta Berdintasuna Foroaren ordezkariak hartu du hitza. Adierazi du orain dela 12 egun jaso zuela dokumentazioa eta azaldu du berak ordezkatzeko duen taldean gai horiei buruz eztabaidatzen dutela; beraz, denbora gehiago eskatu du, gaia behar bezala aztertu ahal izan dezaten.

Arkitektoen Elkargoaren ordezkariak hartu du hitza, eta adierazi du denbora gutxi izan dutela dokumentua aztertzeko. Gainera, adierazi du ez dutela aurrerapenik egin, eta, amaitzeko, adierazi du parte hartzea benetan sustatu behar dela.

Gurrutxaga jaunak adierazi du, batetik, dokumentuak ez duela aurrerapenik behar, eta 2010eko HAPOk izan zuela bere aurrerapena. Haren iritziz, garrantzitsua da nabarmentzea 2010eko HAPOren aurretik hori ez zela berdegune bat. Haren taldeak ekipamendu komunitario bat izatea nahi du. Lehen, dentsitate gutxiko etxebizitzak egitea zegoen aurreikusita; bada, aldaketa honekin, hobetu egin da 2010eko HAPOren aurreikuspena eta ekipamendu eredurantz jo da.

Ricardo Burutaranek hartu du hitza, eta adierazi du, aurretik zer esan duten ikusita, gutxienez entzuteko jarrera hartu behar dela. Esan du aurreko legealdian 2010eko HAPOren aurreikuspena aldatzen saiatu zirela eta ekipamendutarako lursail bat jartzea erabaki zutela. Uste du aurreikuspen horrekin hobeto dagoela planeamendua, baina inola ere ez dagoela itxita eta proposamenak entzun daitezkeela.

Batzordeburuak hartu du hitza, eta adierazi du 1995eko Planean 20 etxebizitza zeudela aurreikusita eta, jakina, politikoki ez dela gauza bera luxuzko 20 etxebizitza edo zuzkidurazko 70 apartamentu egitea eta bateragarria dela planeamendua onartzea eta zuhaitzen inbentario bat egitea. Amaitzeko, adierazi du behin-behineko onarpena eman ondoren ez duela eragozpenik ikusten espedientearen gainean berriz ere eztabaidatzeko.

Udal Planeamenduaren Aholku Batzordeak Hiri Antolamenduko Plan Orokorak AU.05 Ategorrieta eta AU NU.02 Uliá eremuetarako agintzen duena aldatze espedienteari buruz informatua izan da.

2.Hasierako onarpena ematea Hiri Antolamenduko Plan Bereziak L0.05 Txominenea hirigintza alorrerako agintzen duena aldatzeari.

Batzordeburuak hartu du hitza, eta jakinarazi du espediente hori epai bat betetzeko sortu dela. Funtsean, ibai parkearen eta etxebizitza babestuetarako ehunekoaren ingurukoa da epaia. Auzitegi Nagusiak ez du esan ondo egin ez denik, baizik eta ez dela justifikatu. Hori dela eta, dokumentua landu dugu, etxebizitza babestuetarako ehuneko eta ibai parkea lehen zeuden bezala utzita. Aldi berean, jabe batzuekin aritu gara lanean, akordioak lortzeko, txosten teknikoen arabera betiere, eta, hala, operazioaren egonkortasun juridikoa bermatzeko.

Marcos Sierrak hartu du hitza, eta adierazi du, haren iritziz, ideiarik logikoena dela Urumearen arro guztia antolatzea, ibaiaren irakurketa natural bat eginda, eta Udalak lan handia duela ibaian gora. Urumea osoaren plangintza bateratu bat egin behar da. Azkenik, gauzak beste modu batera egiteko eskatu du.

Gurrutxaga jaunak hartu du hitza, eta esan du eremu horrek urteak daramatzala garatzeko zain. Orain arte, ibaiari bizkar emanda egin izan dute lan, eta hori aldatu egingo da. Hirigintzako agendaren erdian dagoen operazio bat da, eta, ondoren, Aintzitan eta Sarruetan jardungo dute. Elementu giltzarria da hirian.

Edure Aperribayk, Txomineko antolamendua dela eta, adierazi du nahasi egin behar direla tipologiak, beheko solairuetan gertuko saltokiak jarrita, Lorategi Hirian bezala gerta ez dadin. Merkataritza funtsezkoa da lana eta erreprodukzioko eginkizunak uztartzeko. Espazio komunitarioko zuzkidurak sustatu behar dira beheko solairuetan, eta elementu komunak segurtasun irizpideen arabera diseinatu.

Ricardo Burutaranek hartu du hitza, eta esan du proposamen hori babesten dutela. Etxebizitza babestuen aurreikuspena justifikatu du, interes pribatuaren kaltetan, eta pozik agertu da, beheranzko aurreikuspenik egin ez dela eta. Ibai parkeari dagokionez, uste du askoz ere eremu atsegina goa eta gozagarriagoa sortuko dela. Jabeek karga horietan lagundu behar dute. Azkenik, adierazi du ez dutela aurrerapenaren beharrik ikusi, gizarte premia handia denez gero.

Lourdes Lazaroren iritziz, merkataritza garatzeko beste eredu batean pentsatu behar dute, merkataritzaren eta auzoaren arteko harremana sustatuta. Hainbat etxabe hutsik daudela kontuan izanda, bizilagunak hornitzeko ezinbesteko merkataritza ardatzak nola sortu pentsatu behar dute.

Joaquín Gómez *Kintxok* hartu du hitza, eta azaldu du merkataritzan pentsatu behar dutela, baina baita ekipamenduetan ere. Interesgarria litzateke erreserbak egitea anbulatorio, haur eskola eta halakoetarako. Non joango diren markatu behar dute, eta lotarako eremuak saihestu.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 109. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu, eta Udal Planeamenduaren Aholku Batzordeak aho batez adierazi du jaso duela "LO.05 Txominenea" hirigintza esparruari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko espedientearen berri.

3.- Garbera merkataritza gunea handitzeari buruzko informazioa

Batzordeburuak hartu du hitza, eta Merkataritza Ekipamenduak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren gaineko epaiaren berri eman du. Funtsean, epaiak dio merkataritza gunen baten azalera ezin dela mugatu arrazoi ekonomikoengatik. Garbera merkataritza gunean, errealitate berri bati egin behar zaio aurre, eta udal gobernuak egoera aztertzen ari da, eragina ahalik eta txikiena eta onena izan dadin. Ezin dugu alde batera utzi hurbileko beste merkataritza gunen batzuk handitzen saiatuko direla, eta, edonola ere, hobe dela lehendik dagoen gunen bat handitzea, berri bat egitea baino. Argi utzi nahi du guk egiten ez dugun hori beste batzuek egingo dutela. Azkenik, esan du oraindik ez dutela erabakirik hartu.

Marko Sierrak hartu du hitza, eta esan du inguru horretako mugikortasuna aldrebeskeria hutsa dela.

Gurrutxaga jaunak argitu du, handituko balitz ere, okupazioa berbera izango litzatekeela.

Amaia Almirallek hartu du hitza, eta argi utzi du epaiak ez duela Garbera handitzera behartzen; aukera bat da baina ez bete behar bat. Haren iritziz, hobe da hurbileko merkataritzaren bidez saiatzea auzoetako espazioak betetzen. Garberak aurreko eta ondoko egoera bat ekarri du auzoetako merkataritzara, saltokiz hustu dira eta. Esate baterako, Txominekoa diseinatzeko badugu eta ondoan Garbera badago, jendeak gehiago erabiliko du autoa. Gainera, Eusko Jaurlaritzak berak dioenez, datozen 16 urteotan ez da halako beste aurreikuspenik egin beharrik izango.

Lourdes Lazaroren iritziz, balioetsi egin behar da gunea handitzeak nola eragingo dion Donostiako merkataritza sareari. Esate baterako, Garberak Altzari, Egjari eta Amarari berari ere eragin zien bere garaian. Muinoan ere garatuko da merkataritza, eta hori kontuan izan behar da. Interesgarria litzateke Donostiako merkataritza ereduari buruz gogoeta egitea, merkataritzak zerga aldetik zer ekarpen egiten duen neurtzea, familiei zenbat lan ematen dien ikustea. Azkenik, epaia betetzeari buruz galdetu du, eta kontraprestaziorik ba al dagoen.

Gurrutzaga jaunak hartu du hitza, eta adierazi du argi dagoela epaiak ez duela handitzera behartzen, hitzarmena indargabeturik geratu zela eta, beraz, ez dagoela kalte-ordainik eman beharrik. Gainera, sortutako eztabaidaren harira, adierazi du Donostiak merkataritza saldo positiboa duela, % 25 Donostia-Beterritik eta Iparraldetik datorrela eta ez dela kokapen hori galdu behar, Baiona eta halako hiriak lehian baitira. Azkenik, adierazi du kontuan izan behar dutela enplegua sortzea, eta, muinoari dagokionez, argi utzi du San Bartolomeko operazioak ez zuela aurrera egiterik izango merkataritza erabilera sartu ez balute.

Ray Mendiburuk erantsi du Oartzunen hiru merkataritza gunee jarriko dituztela.

Batzordeburuak itxi du eztabaida, esanez ez dela egin behar Garberak izango duen eraginaren analisi sinplista bat eta faktore asko daudela jokoan, esate baterako merkataritza elektronikoa.

4.- Galderak eta eskaerak.

Marko Sierrak adierazi du 500 inkesta daudela Uliako Plan Bereziaren inguruan.

Ray Mendiguruk espedientei buruzko informazioa lehenbailehen emateko eskatu du.

Amaia Almiralkek bat egin du azken eskaera horrekin.

Izaskun Aseginolazak kontseilua maizago biltzeko eskatu du.

Azkenik, Joaquin Gomez *Kintxok* Illunbez galdetu du.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, 19:30ean, bilera amaitu da.

BATZORDEBURUA,

Sinatua: Enrique Ramos Vispo

IDAZKARIA,

Sinatua: Jon Mikel Garagarza Roteta